

**BASAURIKO UDALA ETA MENDEKO ORGANISMO
AUTONOMO ETA SOZIJETATE PUBLIKOAK**

**2010. EKITALDIKO KONTU OROKORRA OSATZEN
DUTEN URTEKO KONTU BATERATUAK, IKUSKAPEN
TXOSTENAREKIN BATERA**

**BASAURIKO UDALA ETA MENDEKO ORGANISMO
AUTONOMO ETA SOZIJETATE PUBLIKOAK**

**2010. EKITALDIKO KONTU OROKORRA OSATZEN
DUTEN URTEKO KONTU BATERATUEI BURUZKO
IKUSKAPEN TXOSTENA**

URTEKO KONTUEI BURUZKO IKUSKAPEN TXOSTENA

Basauriko Udaleko Kontu-hartzaileari:

0. SARRERA

BASAURI Nerbioi-Ibaizabal eskualdean dago, Bizkaiko Lurralde Historikoan, eta 42.452 biztanleko zuzenbideko biztanleria dauka 2010eko urtarrilaren 1eko datuen arabera.

2010eko ekitaldiari dagokion BASAURIKO UDALAREN kontu orokorra, *Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauko 62.* artikulua exijitzen dituen udalaren eta berezko nortasun juridikoa duten haren mendeko “UDAL KULTUR ETXEA”, “KIROLAREN UDAL ERAKUNDEA”, “BASAURIKO UDAL EUSKALTEGIA” eta “ETXE MAITIA ZAHARREN UDAL EGOITZA” organismo autonomoen eta “BASAURI –ETXEBARRI BEHARGINTZA, S.L.” eta “BIDEBI-BASAURI, S.L.” sozietate publikoen, aurrekontu-izaereko eta patrimonial-izaereko kontuek eta egoera-orriek osatzen dute.

Aipatutako erakundeei aplikagarria zaien finantza eta aurrekontu informazioaren esparru-araugilea, aurreko Foru Arauak, hala nola, *Bizkaiko Toki Erakundeetako Aurrekontuen egitura eta Kontabilitate Publikoko Plan Nagusia onesten duen 2004ko abenduaren 15eko 235/2004 Foru Dekretuak* ezarritako da. Halaber, mendeko sozietate publikoek beraien urteko kontuak azaroaren 16ko 1514/2007 *Errege-Dekretuak onetsitako Kontabilitate Plan Orokorren* arabera eta legezko xedapenek derrigorrezten dituzten kontabilitate gaien arabera aurkezten dituzte.

Lanaren norainokoak ez du gastuaren eraginkortasuna eta efizientziaren analisia barneratu, ezta Udaleko kudeaketa prozedurena ere.

I. IKUSKAPEN IRITZIA

1. BASAURIKO UDALAREN (Udala aurrerantzean) eta haren mendeko organismo autonomo eta sozietate publikoen (aurreko “0. Sarrera” atalean eta erantsitako memoria bateratuaren 1. oharrean deskribatutakoak) urteko kontu bateratuak ikuskatu ditugu, aipatutako entitateen 2010eko abenduaren 31ko egoera balantze bateratua eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagokion galdu-irabazi kontu bateratua, memoria bateratua, aurrekontuaren likidazio-egoera bateratua eta aurrekontu emaitza bateratuaren eta mozkin bateratuaren arteko kontziliazioa barnean hartzen dituelarik. Dokumentu hoiek Udaleko Kontu Orokorraren barnean daude. Bateratutako entitate bakoitzeko Lehendakari eta Esku-hartzaileak urteko kontuen formulazioaren, eta kasu denean, aurrekontu kitapen ematearen arduradunak dira, finantza eta aurrekontu informazioko arau-esparruan oinarrituta (aurreko “0. Sarrera” atalean identifikatuta), eta partikularrean, bertan barneratzen diren printzipio eta kontabilitate irizpide publikoetan oinarrituta. Udaleko Kontu-hartzaileak, erantsitako 2.c atalean isladatutako irizpide eta prozeduretan oinarrituta, formulatutako eta emandako urteko kontuen eta aurrekontu kitapenen bateratzea burutu du. Gure erantzunkizuna, egindako lanean oinarrituta, urteko kontu bateratu horien inguruko iritzia ematea da. Hurrengo 2tik 4rako paragrafoetan aipatutako salbuespenak izan ezik, lana Espainian indarrean dagoen kontu-ikuskaritza aktibitatea erregulatzen duen arautegiaren arabera burutu da, aukera-saio bidez eginiko urteko kontu bateratuen zuintasun justifikagarriaren azterketa eskatzen duelarik eta honen aurkezpena, erabilitako kontabilitate printzipio eta irizpide, eta eginiko zenbatespenak, aplikagarri den finantza eta aurrekontu informazio arau-esparruekin bat datozen ebaluatzea eskatzen duelarik.

2. “BASAURIKO UDAL EUSKALTEGIA” organismo autonomoak, ez ditu 2010eko uztailaren 2tik eta txosten honen data bitartean Errektore Kontseiluak burututako bilera guztien aktak gure eskura jarri, hoietan hartutako ebazpenak eskuratu eta egiaztatu ezin izan ditugularik. Honen ondorioz, ezin dugu zehaztu erantsitako 2010eko urteko kontu bateratuetan eragina izan dezaketen erabakiak hartu direnik.

3. Txosten honen datan, ezin izan dugu jaso ondokoengandik baieztapena jasotzeko egin genuen eskaeraren erantzuna:

- a) Udalaren eta “Basauri-Etxebarri Behargintza, S.L.” sozietate publikoaren zenbait erakunde diru-emaila, 2010. urtean beraien aurrekontuaren kargura egin zaien egiztatutako ordainketei dagokienez.
- b) Udalarekin eta “udal kultur etxea”, “Basauriko udal euskaltegia”, “kirolaren udal erakunde” eta “Etxe Maitia Zaharren udal egoitza” organismo autonomoekin harreman profesionalak izan dituen zenbait abokatu, haiengan eragina izan dezaketen erreklamazio, epaiketa edo auzien ondorioz sor daitezkeen guztizko obligazioen edo pasibo kontingenteei dagokienez.

4. Saldoei dagoiken udal-inbentarioa eta bertan bildutako ondasunen kontabilitate-kontuaren arabera jasotzen dituen informatika-aplikazioak erakutsitako 2010eko abenduaren 31ri buruzko informazioa ez dator bat Udalaren data horretako egoera-balantzeko “Ibilgetua” kapituluko kontu ezberdinekoekin eta “Erabilera orokorrera emandako ondarea” kontukoarekin, aldeak berdinkatu ezin izan ditugularik. Gainera, Entitateak ezarritako kontrolak ez dira nahikoak atal honetan gertatutako mugimendu zehatz guztien erregistroak ziurtatzeko eta organismo autonomoek ere ez dute ondasunen inbentariarik. Gertakari horiek mugatu egiten dute gure lanaren irismena, eragotzi egiten baitigute ziurtaraztea ibilgetuaren gehitzei eta ateratzei dagozkien erregistroen egokitzapena, aplikatutako balioespenaren eta egindako amortizazioen zuzentasuna, eta hala badagokio, egin beharko litzatekeen erregulazioaren zenbatekoa. Hori dela eta, ezin dugu iritzirik eman erantsitako 2010eko urteko kontu bateratuetan duten islaren arrazoizkotasunari buruz.

5. Gainera, gure lanean zehar, aplikatu beharreko kontabilitate printzipio eta irizpideen arabera, erantsitako egoera-orri bateratuen barne hartu beharko liratekeen zenbait doikuntza geratu dira agerian. Jarraian adierazten dira doikuntza horien izaera eta 2010eko ekitaldiko aurrekontu emaitza bateratuan, gastu orokorretarako diruzaintzako gerakin bateratuan eta 2010eko abenduaren 31ko egoera balantze bateratuan dituzte ondorioak:

Gehikuntza / (Murrizketa) - Euro -

	Diruzaintz. gerakina	Aurrekontu emaitza	Aktiboa	Pasiboa	Fondo Propioak
UDALA					
Aitortu gabe dauden 2010eko 4. hiruhileko ur-horniduraren, zabor-bilketaren eta estolderia-zerbitzuaren tasetatik datozen sarrerak	-	-	901.288	-	901.288
Ekitaldi itxieran aitortu ez diren 2010. ekitaldiari dagokion estatuko eta probintziako JEGZren likidazioa	166.779	166.779	166.779	-	166.779
2010.urtean sorrarazitako baina 2011. ekitaldian erregistratuak izan diren udal zergetiko (309.106) eta "enpresa hornidura okupazio tasetiko" sarrerak	-	-	488.380	-	488.380
2010.12.31ren aurretik Energiaren Euskal Erakundeak emandako diru-laguntza eta data horretan aitortutako diru-laguntzen arteko ezberdintasuna	9.093	9.093	9.093	-	9.093
Eusko Jaurlaritzak emandako diru-laguntzak, eta 2010.12.31an aitortu ez direnak:					
- Drogazaletasun programa: 6.003					
- Inmigrazio aktibitateak: 10.098					
- Drogazaletasun programarako teknikoak:4.278					
- OMIC: 9.158					
- Merkagune: 77.040					
2010.12.31an burutzeko zailak edo ezinezkoak diren eskubideen zenbatespen gutxiegia	(249.181)	-	(249.181)	-	(249.181)
2010.12.31an finantza desbideraketa positiboen zenbatespen gutxiegia (Merkagune)	(187.638)	(187.638)	-	-	-
2010.12.31ko egoera balantzeko "hartzekodunak" epigrafean erregistratuak izan diren baina 2010.ekitaldiko aurrekontuan aitortuak izan ez diren urtean burututako gastu eta inbertsioak, data horretan finantza desbideraketa positiboen kalkuluan barneratuak izan ez direlarik	(673.000)	(673.000)	-	-	-
"Udalkutxa"-ren 2009.ekitaldiko behin-betiko likidazioa (2011-2013 bitartean itzultzekoa) finantza-positibo bezala erregistratu izanagatik eta 2010.ekitaldiari dagokiona, finantza-pasibo horretatik deskontatu izanagatik, aurrekontuan aitortu ez den bitartean (*)	(4.630.000)	1.273.000	-	-	-
TOTAL	(5.457.370)	694.811	1.422.936	-	1.422.936

(*) *Salbuespen honen ondorioz, 2009ko abenduaren 31ko aurrekontu emaitza bateratua eta gastu orokorretarako diruzaintzako gerakin bateratua 5.903 mila eurotan gaineratik balioetsita zeuden.*

6. 2007ko abenduaren 21an Udalak ADIF Infraestructuras Ferroviarias-eko Administrazioarekin eta Bilbao Ria 2000, SA sozietate publikoarekin lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu zuen. Horren bidez, aipatutako sozietateari Bidebieta-Pozokoetxe-Lapatza kudeatzeko ardura ematen zitzaion. Eragiketa autofinantzatzea espero bada ere, Udalak erantzungo dio aipatutako sozietateak eragiketa garatzen izaten dituen finantza-desfaseak estaltzeko beharrari. Izan ere, hitzarmen horretan ezarritako baldintzen arabera, eragiketaren ondorioz lortzen diren

baliabideekin haren bideragarritasun materiaiala zuirtatzeko konpromisoa hartzen du. 2010eko abenduaren 31an, sozietate horrek egindako 2.398 mila euroko ordainketak (1.666 mila euro 2009ko abenduaren 31arte ordainduak eta beste 732 mila euro 2010.ekitaldian) epe luzerako aurrerakintzat hartu dira, eta data horretara erantsitako egoera-balantze bateratuko “Finantza-ibligetua” epigrafean kontabilizatu dira. Hala ere, deskribatutako gertaerak ez dira erantsitako memoria bateratuan azaltzen, aurrerakina kitatzeko eraren, unearen eta kopuruaren inguruan, bai eta eragiketa horren etorkizuneko emaitzen inguruan ere, emandako aurrerakinak data horretan erregistratutako zenbatekoetan gauzatu daitezkeen ez jakinik edo adierazitako egoera-balantze bateratuan horniduraren bat erregistratzea bidezkoa litzatekeen. Honen emaitza, entitatearen zuzeneko kontrolaren menpe ez dauden akzio eta etorkizuneko gertaeren menpe dago.

7. 2009ko ekainaren 5ean Udalak lurpeko aparkalekurako lur-azpia saldu zuen, 2010eko ekainaren 21an, Udalbatzako erabakiaren ostean, kontratua aldatua izan zelarik. Honela, esleipendunak aparkaleku horiek saltzeko aukera izateaz gain, hainbat kirol ekipamenduen obra eta inguruneko urbanizazioa burutzera eta hauek Udalari entregatzera behartuta zegoen. Lan hauek proiektu erredaktatuan eta baldintza teknikoen agirian ezarritakoaren arabera burutu behar ziren. Hala ere, azken dokumentu honetan, lan hauetan aldaketak izateko aukera barneratzen zen, Udalak onartuak eta esleipendunarekin hitzartuak izan behar direlarik. Edozein kasutan, salmenta-eskitura baldintzen arabera, salmenta baldintzatuta zegoen “eskuratzailleak obrak baldintza teknikoen agirian edo Jurídico-Ekonomiko-administratibo baldintzen agirian ezarritakoaren arabera eta finkatutako epean burutzen ez baditu salmenta baliorik gabe geldituz”. Bestaldetik, 2011ko urrian salduak izan ez diren aparkalekuak, eta gehinez 275, erosteko hitza eman zuen Udalak.

Kontratu honen burutzearen ondorioz, erantsitako 2010eko abenduaren 31ko egoera balantze bateratuko “Zordunak” epigrafean, lur-azpiko salmentaren ondoriozko 1.865 mila eurotako zorraren zenbatekoa erregistratuta dago. Aldi berean, burutu beharreko lanen harrera aipatutako egoera balantze bateratuko “Erabilera orokorrerako inbertsioak”, “Ibilgetu materiala” eta “Galerak eta irabaziak” epigrafetan, hurrenez hurren, 553 mila euro, 1.269 mila euro eta 1.822 mila eurotako hazkuntza suposatu dute. Hala ere, nahiz eta udal arkitektoak 2011ko maiatzaren 25ean burututako txostenaren arabera, udalari entregatutako lanak eta aipatutako agirian jasotakoak bat ez datozela agerian jarri, udalak ez ditu aldaketa hauek onartu ezta formalizatu ere.

Bestaldetik, kontabilitatean inguruneko urbanizazio lanak 313 mila euro baino gehiagotan esleitu dira, udalari entregatu behar ez diren elementuak kontutan hartu izan direlako.

Hala ere, erantsitako memoria bateratuak aurrean deskribatutako gertaerak, udal ondarearen gain izan dezaketen behin betiko edo behin behineko eragina eta aplikagarria izan daitezkeen baldintza-erabakigarriari buruzko informazioa ez du biltzen, aurrean aipatutako “Zordunak” epigrafean kontabilizatutako saldoak 2010eko abenduaren 31an erregistratutako zenbatekoan gauza daitezkeen ez jakinik, edo data horretan erantsitako egoera balantze bateratuan hornidura burutzea egokia litzatekeen, guzti honen emaitza entitateko kontrol zuzenaren menpe ez dauden etorkizuneko ekintzen menpe egonik.

8. Gure iritziz aurreko 2.paragrafotik 4.era deskribatzen den dokumentazioa lortu eta egiaztatu ahal izan bagenu beharrezkotzat har zitezkeen doikuntzen ondorioak salbuetsita eta aurreko 5.paragrafotik 7.era bitartean deskribatzen diren salbuespenen ondorioak salbu, erantsitako 2010.eko ekitaldiko urteko kontu bateratuak, alde esanguratsu guztietan 2010eko abenduaren 31an BASAURIKO UDALAREN eta berezko nortasun juridikoa duten udalaren mendeko organismo autonomoen eta sozietate publikoen (aurreko “0. Sarrera” atalean eta erantsitako memoria bateratuaren 1. oharrean deskribatutakoak) ondare bateratuaren eta ekonomi-finantza egoera bateratuaren irudi fidagarria ematen dute, eta data horretan bukatutako ekitaldiko eragiketen emaitza bateratuarena, hauen aurrekontuen kudeaketa bateratuarena eta jatorritako eta aplikatutako baliabide bateratuarena, aplikagarria den finantza eta aurrekontu informazioaren esparru-araugilearen arabera, eta partikularrean, hauen kontabilitate printzipio eta irizpide publikoen arabera.

Betean Auditoría, S.L.P.

(Sociedad inscrita en el R.O.A.C. con el nº S-1354)



José Ignacio Miguel Salvador

Bilbao, a 27 de mayo de 2011

**BASAURIKO UDALA ETA MENDEKO ORGANISMO
AUTONOMO ETA SOZIJETATE PUBLIKOAK**

**2010. EKITALDIKO KONTU OROKORRA OSATZEN
DUTEN URTEKO KONTU BATERATUAK**

BASAURIKO UDALA

2010. Urteko Kontu Bateratuak

BASAURIKO UDALA
2010 eta 2009ko abenduaren 31an bateratutako egoeren balantzeak
(milaka eurotan adierazita)

AKTIBOA	2010	2009	PASIBOA	2010	2009
Ibilgetua	81.727	71.734	Berezko fondoak	92.353	91.490
Erabilera orokorrerako inbertsioak	13.675	10.469	Ondarea	100.301	95.193
Ibilgetu ez-materiala	2.181	2.061	Lagatako ondarea	(21.070)	(19.349)
Ibilgetu materiala	57.967	51.148	Erreserbak sozietate publikoetan	69	44
Lurzoruaren udal ondarea	5.048	6.094	Galerak eta Irabaziak	13.053	15.602
Ibilgetu finantzarioa	2.856	1.961			
Aktibo zirkulatzaila	33.918	38.602	Hornidurak, arrisku eta gastuetarako	80	80
Zordunak	10.992	7.190			
Finantza-kontuak	22.926	31.412			
			Hartzekodunak, epe luzera	9.828	8.911
			Zorrak, kreditu erakundeekin	6.791	3.008
			Zorrak erakunde publikoekin	3.037	5.903
			Hartzekodunak, epe laburrera	13.384	9.855
			Hartzekodunak	9.373	7.451
			Herri erakunde hartzekodunak	3.087	1.445
			Bestelako zorrak	801	804
			Aplikatu gabeko diru-sarrerak	123	155
Aktiboa guztira	115.645	110.336	Pasiboa guztira	115.645	110.336

BASAURIKO UDALA
2010 eta 2009ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldietarako galera eta irabazien kontu bateratuak
(milaka eurotan adierazita)

GASTUAK	2010	2009	SARRERAK	2010	2009
Ustiapen gastuak	49.721	48.871	Ustiapeneko sarrerak	60.637	64.145
Pertsonaleko gastuak	21.914	21.654	Zerbitzu-eskaintzak	8.628	7.911
Ibilgetuaren amortizazio-hornidurak	2.297	2.033	Zuzeneko zergak	10.881	10.454
Trafiko-horniduretako aldaketa	(100)	232	Zeharkako zergak	1.004	1.365
Emandako transferentziak eta diru-laguntzak	3.338	3.594	Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak	38.965	43.308
Ustiapeneko bestelako gastuak	22.272	21.358	Ohiko gestioko beste sarrerak	1.159	1.107
Ustiapenaren mozkina	10.916	15.274			
Eraitza finantzario positiboak	486	671			
Ohiko jardueren mozkina	11.402	15.971			
			Aurreko ekitaldietako eraitza negatiboak	342	2.207
Ezohiko eraitza positiboak	1.993	1.838			
Ekitaldiko mozkina	13.053	15.602			

BASAURIKO UDALA
2010. ekitaldiko aurrekontuaren bateratutako likidazio-egoera
Gastuei buruzko aurrekontuaren likidazioa
(milaka eurotan adierazita)

Kap.	Deskribapena	Hasierako aurrekontua Hasierakoa	Aldaketak	Behin-betiko aurrekontua	Konprometit utako kredituak	Ezagututako obligazio garbiak	Egindako ordainketak	Egindako ordainketak
I	Pertsonaleko gastuak	20.827	2.267	23.095	22.502	21.751	21.721	30
II	Erosketak eta gastuak	21.988	1.790	23.788	23.091	21.983	18.820	3.163
III	Gastu finantzarioak	87	(13)	73	59	59	59	0
IV	Transferentzia arruntak	2.392	1.009	3.401	3.135	3.135	2.931	204
VI	Inbertsioak	6.628	32.921	39.548	29.059	21.938	17.892	4.047
VII	Transf. de capital	128	240	368	203	203	203	0
VIII	Finantza-aktiboak	233	728	961	875	875	418	457
IX.	Finantza-pasiboak	515	355	870	515	515	515	0
	Orotara	52.808	39.297	92.105	79.438	70.459	62.559	7.899

BASAURIKO UDALA
2010. ekitaldiko aurrekontuaren bateratutako likidazio-egoera
Sarrerei buruzko aurrekontuaren likidazioa
(milaka eurotan adierazita)

Kap.	Deskribapena	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin betiko aurrekontua	Ezagututako eskubide garbiak	Dirubilketa garbia	Bildu gabeko eskubideak
I	Zuzeneko zergak	10.495	129	10.624	10.881	10.577	304
II	Zeharkako zergak	820	0	820	1.004	581	423
III	Tasak eta bestelako diru-sarrerak.	9.685	0	9.685	9.561	7.863	1.698
IV	Transferentzia arruntak	25.121	2.725	27.846	28.706	26.094	2.612
V	Ondare-sarrerak	688	0	688	405	403	2
VI	Inbertsioak besteentzea	0	895	895	1.353	1.073	280
VII	Kapital transferentziak	0	8.612	8.612	10.281	5.160	5.122
VIII	Finantza-aktiboak	233	26.936	27.170	167	167	0
IX	Finantza-pasiboak	5.766	0	5.766		4.300	0
	Orotara	52.806	39.297	92.105	66.658	56.218	10.440

BASAURIKO UDALA
2010. ekitaldiko aurrekontuaren bateratutako likidazio-egoera
(milaka eurotan adierazita)

A) Doitutako aurrekontuaren emaitza	2010	2009
Ezagututako eskubide garbiak	66.658	70.899
Ezagututako obligazio garbiak	(70.459)	(67.804)
Eskubideak - Obligazioak	(3.801)	3.095
Finantziazio-desbideraketa positiboak	(9.602)	(12.887)
Finantziazio-desbideraketa negatiboak	0	0
Diruzaintzako soberakinekin finantzatutako gastuak	18.706	13.812
Ekitaldiko aurrekontuaren emaitza	5.303	4.020
Itxitako aurrekontuen emaitza	(344)	(302)
Doitutako aurrekontuaren emaitza	4.959	3.718
B) Aurrezki garbia	2010	2009
Sarrerei buruzko I. Kapitulutik V.era	20.557	51.125
Gastuei buruzko I., II. eta IV. kapituluak	(46.869)	(47.026)
Aurrezki gordina	3.688	4.099
Gastuei buruzko III. kapitulua	(59)	(85)
Gastuei buruzko IX. kapitulua	(515)	(515)
Aurrezki garbia	3.114	3.499

BASAURIKO UDALA
2010. ekitaldiko aurrekontu emaitzaren eta mozkinaren arteko kontziliazioa
(milaka eurotan adierazita)

Kontzeptua	Zenbatekoa
Doitutako aurrekontuaren emaitza	4.959
Igotzeak:	37.019
Ibilgetuaren altak	25.323
2010 Udalkutxaren likidazioa	1.273
Trafiko-horniduretako aldaketa	100
Afektaturiko finantziazio-desbideraketa positiboak	9.602
Zorraren amortizazioa	515
Baiokodetzan jarritako sozietateen etekinak	206
Gutxitzeak:	28.925
Zorraren operazioa	4.300
Aplikatu gabeko fakturen igoera	1.282
Ibilgetuaren amortizazioa	2.297
Diruzaintzako soberakinekin finantzatutako gastuak	18.706
Lurzoruaren ondarearen egokitzea	1.005
Kapital transferentzia beste ekitaldi bati dagokiona	1.291
Sozietateen galerak eta pertsonal aurrerakinen bilakaera	44
Ekitaldiko mozkina	13.053

BASAURIKO UDALA
Memoria bateratua

1. Erakundearen izaera eta jarduera

Honi erantsitako urteko kontu bateratuak Basauriko Udalarari, Erakunde Autonomoei (Kultur Etxea, Kirolaren Udal Erakundea, Udal Euskaltegia eta Zaharren Egoitza) eta Menpeko Sozietate Publikoei (Basauri-Etxebarri Behargintza, SL eta Bidebi-Basauri, SL) dagozkienak dira, eta horien jarduerak toki-erakunde batek berezkoak dituenak dira, Bizkaiko lurralde historikoko toki-erakundeei aplikagarri zaien lege-arautegiaren arabera.

2. Aurkezpeneko oinarriak

a) Irudi fidela

Finkatutako urteko kontuak Basauriko Udalaren, Erakunde Autonomoen eta Menpeko Sozietate Publikoen kontabilitate-erregistroetatik abiatuta prestatu dira, eta finkapeneko arauen eta indarrean dagoen legeriaren arabera aurkezten dira, modu horretan, ondarearen, egoera finantzarioaren, Aurrekontu egikaritzearen, eta Finkatutako Erakundearen emaitzen irudi fidela ematea bilatzen da.

Aurreko paragrafoan adierazitako aurrekontuari buruzko informazioak Udalaren eta horren Erakunde Autonomoen datu bateratuak jasotzen ditu; baina ez menpeko sozietateenak, horiek ez baitute aurrekontu-likidaziorik aurkezten, merkataritzako izaera baitute.

b) Kontu-sailak elkartzea

Balantzea eta galera eta irabazien kontua hobeto ulertzeko, egoera horiek elkartuta aurkeztu dira, eta eskatutako azterketak memoriaren ohar egokietan aurkeztu dira.

Halaber, berezko fondoan aurkezpena hobetzeko asmoz, Ondarea epigrafeak izen bereko kontuaren, erabilera orokorreko ondarearen eta aurreko ekitaldietako emaitzen guztirako saldo garbia erakusten du, memoria honen 11. oharrean zehaztuta dagoenez.

c) Bateratzea

Urteko kontu bateratuak kontabilitatea bateratze irizpide orokorren arabera prestatu dira, batez ere, integrazio globaleko ereduari jarraiki. Horretarako, bateragarria den perimetroan dauden erakundeen arteko transakzio guztiak ezabatu egin dira, eta baita ere ondare-eragina ere, baldin eta hori Udalak Erakunde Autonomoei ondasunak esleitze bidez badator.

Menpeko Sozietate Publikoei dagokienez, kontu bateratuetarako beraien ondare urritasuna ikusita, baliokidetzan jartzeko metodoa erabili da.

BASAURIKO UDALA
Memoria bateratua

d) Informazioaren alderatzea

Erantsitako urteko kontu bateratuek aurreko ekitaldiko saldoak erakusten dituzte. Alderatzea errazteko bidean, 2009.ko urteko kontuetan agertzen ziren saldoetan berezko fondoan zenbatekoan efekturik ez duten aldaketa batzuk egin dira.

Esandako aldaketa horiek, alde batetik, baliokidetzat metodoa lehen aldiz aplikatzeari, eta, bestetik, aurreko b) puntuari berezko fondoan aurkezteko moduari dagozkie.

3. Baloratzeko arauak

a) Erabilera orokorrerako inbertsioak

Erabilera orokorrerako inbertsioak eskuratze-prezioan edo ekoizpen-kostuan baloratu behar dira. Eraikuntza edo ekoizpen prozesua amaitutzat jotzen den eta herritarren erabilera orokorrera entregatuak diren unean, kontu honetan baja ematen zaie eta Ondareko kontuan zordun egiten zaie.

b) Ibilgetu ez-materiala

Ibilgetu ez-materialak erositako edo produkzio-kostuko prezioan kontabilizatuta daude. Amortizazioa metodo linealaren arabera kalkulatzen da, hurrengo bizitza erabilgarriaren arabera:

	<u>Urteak</u>
Informazio prozesuetarako ekipoen softwarea	5
Bestelako ibilgetu ez-materiala	10

c) Ibilgetu materialak

Ibilgetu materialaren barruan dauden ondasunak baloratzeko kontuan hartu da eskuratze-prezioa edo ekoizpen-kostua. Doan eskuratutako ondasunak direnean, eskuratzeko unean ondasun horiek daukaten benetako balioa izango da eskuratze-prezioa.

1990eko uztailaren 17ko Toki Erakundearen Kontabilitate Instrukzioari erantsitako Kontabilitate Publikoko Plan Orokorraren IIA. atalean bildutako balorazio-irizpideen arabera, lehenengo urteko kontuak ezarritakoan agertu ziren ibilgetu materialaren ondasunak, batez ere, aditu independente batek egindako tasaziotik ondorioztatutako balioen arabera erregistratu ziren.

Linealki amortizatu ziren, horien bizitza erabilgarriaren arabera, eta hurrengo koefizienteen funtziotan:

BASAURIKO UDALA
Memoria bateratua

	<u>Urteak</u>	<u>%</u>
Eraikinak	50	2
Instalazio teknikoak eta makinak	8	12,5
Altzariak	8	12,5
Informazioa prozesatzeko ekipoak	5	20
Garraioko elementuak	5	20
Bestelako ibilgetu materiala	8	12,5

Dauden ondasunetan aktiboen iraupen baliagarria luzatzen duten hobekuntzak kapitalizatu egiten dira. Ibilgetu materialarekin harreman zuzena daukaten eta abian jarri baino lehen sortzen diren finantza gastuak eta trukeko diferentziak ere kapitalizatu egiten dira. Mantentze- eta iraunarazte-lanen gastuak, sortzen diren unean emaitzetan kargatzen dira. Bajak eta besterentzeak kontabilitatean agertzeko, elementuaren kostua eta dagokion amortizazio metatua ezabatzen dira.

d) Lurzoruaren udal ondarea

Lurzoruaren udal ondarean sartutako ondasunak, ondarezko izaera izanik, hiri-lurrean edo lur urbanizagarrian kokatutako lur-sailak eta eraikinak dira. Horien erosteko edo eraikitzeak kostua islatzen da. Doan lortu badira, hori gertatu den momentuko salmentabaliao jarriaz kontabilizatzen dira.

Lurzoruaren udal ondarearen barruan dauden ondasunak metodo linealaren bidez amortizatzen dira, hain zuzen, ibilgetu materialean barne sartutako ondasunen bizitza erabilgarri beraren funtzioan.

e) Ibilgetu finantzarioa

Ibilgetu finantzarioak erosketaren prezioan islatzen dira, edo merkatuarenean hori txikiago balitz.

f) Inbertsio finantzario iragankorrak

Inbertsio finantzario iragankorrak erosketaren prezioan islatzen dira, edo merkatuarenean hori txikiago balitz. Merkatuaren prezioa ibilgetu finantzarioentzat ezartzen diren irizpide berekin ezartzen da.

g) Hartzekodunak

Epe luze eta laburreko zorrak beren ordain-jasotzeko balioan kontabilizatuta agertzen dira, eta balio nominal edo ordain-jasotzean erantsitako balizko interes implizituak ere islatzen dira, ekitaldi batzuetan banatzekoak diren Gastuen epigrafean. Aipatu interesak emaitzei egosten zaizkie irizpide finantzarioa kontuan hartuta.

BASAURIKO UDALA
Memoria bateratua

h) Sarrerak eta gastuak

Sarrerak eta gastuak sortzapean irizpideari jarraiki egozten dira, hau da, horiek ordezkatzeko dituzten ondasun eta zerbitzuen benetako korrontearen funtzioan, eta ez da kontuan hartzen horietatik ondorioztatzen diren moneta-korrante edo finantzarioko momentua.

Hala ere, zuhurtasun-printzipioari jarraiki, Sozietateak ekitaldia itxitako datan egindako mozkinak bakarrik kontabilizatzen ditu, eta jatorria ekitaldi honetan edo aurreko batean izanik, aurreikusteko moduko arriskuak eta balizko galerak, berriz, ezagutu bezain arin kontabilizatuko dira.

i) Gizarte Segurantzari egindako kotizazio gehigarriak

Gizarte Segurantzari ordaindutako kuota gehigarriak ezagutu eta likidatzen diren ekitaldia kontuan izanda, ekitaldi horretako pertsonal gastua bezala kontabilizatuko da, 480/1993 Errege Dekretuaren Hirugarren Xedapen Iragankorraren arabera, 1993ko apirilaren 1etik aurrera Toki Administrazioako funtzionarioak erregimen orokorrean integratzeari buruzkoa, eta kontuan hartzen da ezen, ez dagoela Udalarentzat inolako pasibo edo obligaziorik.

4. Erabilera orokorrerako inbertsioak

2010eko ekitaldian epigrafe honen barnean sartutako kontuetan egondako mugimenduak, hurrengo hauek izan dira:

	Milaka eurotan
Hasierako saldoa	10.469
Eransketak	13.675
Erabilera orokorrari entregatua (11. oharra)	(10.469)
Amaierako saldoa	13.675

Ondasun horiek erabilera orokorrera zein momentuan entregatzen diren zehaztea zaila izanik, kontabilitate ondorioetarako, ekitaldi bakoitza ixtean Ondarera transferitzen dira, epigrafe honetako 12 hilabetetik gorako antzintasuna duten inbertsioak.

5. Ibilgetu ez-materiala

Epigrafe honek ikerketa eta proiektuak egiteari dagokion kostua jasotzen du, eta baita ere softwarearen erosketak. 2010 ekitaldian egindako mugimendu hauek izan dira:

BASAURIKO UDALA
Memoria bateratua

	Milaka eurotan
KOSTUA	
Hasierako saldoa	3.844
Sarrerak	570
Irteerak/bajak	0
Amaierako saldoa	4.414
AMORTIZAZIOA	
Hasierako saldoa	1.783
Hornidurak	450
Irteerak/bajak	0
Amaierako saldoa	2.233
KONTABILITATEKO BALIO GARBIA	
Hasierakoa	2.061
Amaierakoa	2.181

6. Ibilgetu materiala

2010eko ekitaldian Ibilgetu materialaren kontuetan egondako mugimenduak, hurrengo hauek izan dira (milaka eurotan):

	Lurrak	Eraikinak eta beste eraikuntzak	Instalazio teknikoak eta makinak	Altzariak eta beste	Informazio prozesuko ekipok	Garraioko elementuak	Guztira
KOSTUA							
Hasierako saldoa	13.358	42.454	7.379	4.163	2.234	661	70.249
Sarrerak	0	10.041	143	129	0	32	10.345
Irteerak/bajak	0	(1.721)	0	0	0	0	(1.721)
Amaierako saldoa	13.359	50.774	7.522	4.292	2.234	693	78.873
AMORTIZAZIOA							
Hasierako saldoa	0	9.162	4.437	2.971	2.023	508	19.101
Hornidurak	0	850	636	225	40	55	1.806
Irteerak/bajak	0	0	0	0	0	0	0
Amaierako saldoa	0	10.012	5.073	3.196	2.063	573	20.907
KONTABILITAT BALIO GARBIA							
Hasierakoa	13.358	33.292	2.942	1.192	211	153	51.148
Amaierakoa	13.359	40.762	2.449	1.096	171	130	57.967

BASAURIKO UDALA
Memoria bateratua

a) Guztiz amortizatutako ondasunak

2010eko abenduaren 31n badago, erabat amortizatuta dagoen 7.000 mila euro inguruko jatorrizko kostua izan zuen, eta oraindik erabilgarri dagoen ibilgetu materiala.

b) Eskuratutako dirulaguntzak

2010 ekitaldian, Erakundeak 500 mila euro jaso ditu dirulaguntza kontzeptuan, ibilgetu materialean inbertitzeko helburuz. Dirulaguntza horiek, gehienbat erabilera orokorreko inbertsioak finantzatzeko 10.281 mila euroko kapital transferentziekin batera jaso dira (ikus 18a oharra).

7. Lurzoruaren udal ondarea

2010 ekitaldian egindako mugimenduak, honako hauek izan dira (milaka eurotan):

	Lurrak	Eraikinak	Guztira
KOSTUA			
Hasierako saldoa	4.261	2.204	6.465
Sarrerak	0	0	0
Irteerak/bajak	(818)	(187)	(1.005)
Amaierako saldoa	3.443	2.017	5.460
AMORTIZAZIOA			
Hasierako saldoa	0	371	371
Hornidurak	0	41	41
Irteerak/bajak	0	0	0
Amaierako saldoa	0	412	412
KONTABILITATEKO BALIO GARBIA			
Hasierakoa	4.261	1.833	6.094
Amaierakoa	3.443	1.605	5.048

8. Ibilgetu finantzarioa

2010 ekitaldian egindako mugimenduak, honako hauek izan dira (milaka eurotan):

BASAURIKO UDALA
Memoria bateratua

	Partehartze Sozietate publikoetan	e/l maileguak Langileei	e/l mailegua Bilbao Ria 2000 SA-ri	Guztira
KOSTUA				
Hasierako saldoa	225	70	1.666	1.961
Sarrerak	206	0	732	938
Irteerak/bajak	0	(20)	0	(20)
Amaierako saldoa	431	50	2.398	2.879
HORNIDURA				
Hasierako saldoa	0	0	0	0
Hornidurak	23	0	0	23
Irteerak/bajak	0	0	0	0
Amaierako saldoa	23	0	0	23
KONTABILITATEKO BALIO GARBIA				
Hasierakoa	225	70	1.666	1.961
Amaierakoa	408	50	2.398	2.856

Sozietate publikoetan partehartzeari dagokion zenbatekoa, Behargintza Basauri-Etxebarri, S.L. eta Bidebi-Basauri, S.L. sozietateen 2010 urteko kontuek adierazten duten balio garbiaren edo teorikoaren arabera da, jarraian azaltzen denez:

	Milaka eurotan	
	Behargintza	Bidebi
Kontabilitate Balio Teorikoa	426	37
% partehartzea	%87	%100

Bilbao Ria 2000 SA-ri e/l Aurrerapenaren saldoa, ADIF erakundearekin sinatutako Hitzarmenaren bideragarritasuna bermatzeko aipatu sozietateari ordaindutako kopuruei dagokie, eta hori Pozokoetxe, Bidebieta eta Lapatzaren hirigintza-garapenerako da.

9. Zordunak

	Milaka eurotan	
	2010	2009
Ohiko ekitaldian, aitortutako zordunak	9.149	7.045
Itxitako ekitaldietan, aitortutako zordunak	3.204	1.613
Zordun diren erakunde publikoak eta besteak	44	37
	12.397	8.695
Hornidura gutxiago	(1.405)	(1.505)
Guztira	10.992	7.190

BASAURIKO UDALA
Memoria bateratua

10. Finantza-kontuak

Kontzeptu honetan sartutako kontu-sailen xehetasuna hau da:

	Milaka eurotan	
	2010	2009
Kutxa eta banketxeak	6.930	21.485
Epe laburreko ezarpenak	15.753	9.699
Diruzaintzako guztia	22.683	31.184
Langileei aurrerapenak	118	121
Bankukoak ez diren beste kontuak	125	106
	22.926	31.412
Kontu finantzarioak guztira		

Jarraian, 2010 ekitaldian zehar, **Diruzaintzako Egoeraren** laburpena eskaintzea da:

	Milaka eurotan		
	Kobrantzak	Ordainketak	Saldoa
Uneko aurrekontukoa	56.218	62.559	(6.341)
Aurrekontu itxietakoak	5.112	7.262	(2.150)
Aurrekontutik kanpoko eragiketetakoa	11.920	11.930	(10)
Beste Erakunde Publikoetakoa			
	73.250	81.751	(8.501)
Ekitaldiko diruzaintzaren fluxu garbia			
Diruzaintzako hasierako saldoa			31.184
Diruzaintzako amaierako saldoa			22.683

11. Berezko fondoak

Funts propioetan barne sartutako kontuetan izandako mugimenduak, 2010 ekitaldian, hurrengo hauek izan dira:

	Milaka eurotan			
	Ondarea	Lagatako ondarea	Erreserbak sozietate publikoetan	Galerak eta Irabaziak
Hasierako saldoa	95.193	(19.349)	44	15.602
Emaitzaren banaketa	15.576	0	26	(15.602)
Traspasoak	(10.469)	(1.721)	0	(10.469)
Ekitaldiko emaitza	0	0	0	13.053
Amaierako saldoa	100.301	(21.070)	70	13.053

Memoria honen 2. b) puntuan azaltzen denez, Ondarea epigrafeak honako partidak biltzen ditu:

BASAURIKO UDALA
Memoria bateratua

<u>Kontuak</u>	<u>Milaka eurotan</u>
Ondarea	36.427
Erabilera orokorreko ondarea	(51.855)
Aurreko ekialdietako emaitzak	115.729
	<u>100.301</u>

12. Hornidurak, arrisku eta gastuetarako

Balantzean agertutako hartzekodunen saldoa (142 kontua), 80 milakako euro kopurua duena, aribidean dauden auzietatik ondoriozta daitezkeen obligazioak bermatzeko arrazoizkoa den hornidurari dagokio, 2010ko abenduaren 31 arte epaia eman gabe daudenena.

13. Hartzekodunak, epe luzera

a) Zorrak, kreditu erakundeekin

Jarraian, epe luzerako maileguen zerrenda zehazten da, Basauriko Udalak 2010eko abenduaren 31n zor dituenak (milaka eurotan):

<u>Erakundea</u>	<u>Helburua</u>	<u>Likidatzeko urtea</u>	<u>T/i (*)</u>	<u>Saldo zordun</u>	<u>e/l-ko zatia</u>	<u>e/lb-ko zatia</u>
BBK	Inversiones	2016	E+0,10	1.870	1.530	340
BBK	Inversiones	2017	E+0,10	1.137	961	176
Banesto	Inversiones	2022	E+0,94	2.150	2.150	0
C.R. Navarra	Inversiones	2022	E+0,94	2.150	2.150	0
				7.307	6.791	516

* E = EURIBOR (*komisiorik, biribiltzerik gabe, eta bitartekotzako gasturik gabe*)
Aurreko koadro horretako eragiketak Korporazioaren berme orokorrarekin bermatuta daude.

b) Zorrak erakunde publikoekin

Saldo hori Bizkaiko Foru Aldundiari 2012 eta 2013an itzuli beharreko zenbatekoari dagokio, kontzertatutako tributuak biltzekoan Basauriren parte hartzeari dagokion behin betiko likidazioengatik 2009 eta 2010 ekitaldietan, Bizkaiko Finantzen Lurralde Kontseiluaren barruan hartutako erabakiaren arabera.

Aipatu erabakiaren arabera, likidazio horien saldo garbi osoa, zeina Basaurirentzat 4,7 miloi eurotara igotzen den, zati berdinetan itzuliko da kontura egingo diren entregetan kargatuz, 2011tik 2013ra bitarteko ekitaldietan.

Arrazoi horregatik 2011. ekitaldian itzuli beharreko zatia, hartzekodunen erakunde publikoen epigrafean, agertzen da (ikus 15. oharra).

BASAURIKO UDALA
Memoria bateratua

14. Hartzekodunak

	Milaka eurotan	
	2010	2009
Ezagututako eta ordenatutako obligazioengatiko hartzekodunak (ohiko ekitaldia)	7.899	7.234
Ezagututako eta ordenatutako obligazioengatiko hartzekodunak (itxitako ekitaldia)	6	35
Aplikatu edota jaso gabe dauden fakturengatiko hartzekodunak	1.395	113
Bestelako hartzekodunak	74	69
	9.374	7.451

15. Herri erakunde hartzekodunak

	Milaka eurotan	
	2010	2009
BFA – Udalkutxa e/lb.ra itzultzeko (13 b oharra)	1.594	0
Ogasun Publikoa	837	851
Gizarte Segurantza eta beste Erakundeak	516	511
Bestelako kontzeptuak	140	83
	3.087	1.445

16. Bestelako zorrak

	Milaka eurotan	
	2010	2009
Jasotako maileguengatiko e/lb.eko zorrak	515	515
Jasotako fidantzak eta gordailuak	284	289
	800	804

17. Aplikatu gabeko diru-sarrerak

Epigrafe honetan batez ere, hirigintzako izaeragatik egindako sarrerak jasotzen dira, zeinen helburua inbertsioak egitea izan behar duen, eta Euskaltegiko matrikulengatiko sarrerak eta KUE-ko abonatuaren kuotak, 2010ean jasoak baina 2011ri dagozkionak.

BASAURIKO UDALA
Memoria bateratua

18. Sarrerak eta gastuak

a) Transferentziak eta dirulaguntzak

Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak:

	Bizkaiko Foru Aldundia		Eusko Jaurlaritza		Beste batzuk		Guztira	
	2010	2009	2010	2009	2010	2009	2010	2009
Transf. arruntak	24.919	22.463	3.969	1.771	1.087	1.416	29.975	25.650
Kapital transferentziak	1.892	9.497	3.744	397	3.354	7.764	8.990	17.658
	26.811	31.960	7.713	2.168	4.441	9.180	38.965	43.308

Emandako transferentziak eta diru-laguntzak:

Transferentzia eta dirulaguntza hauek familiei, eta hurrengo izaera duten talde edo erakundeei eman zaizkie, laguntzeko izaera dutenei, kultura edo kirol izaera dutenei, eta batez ere, gizarte izaera duten laguntzak nabarmentzen dira.

b) Pertsonaleko gastuak

	Milaka eurotan	
	2010	2009
Soldata eta alokairuak	16.737	16.502
Zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainak	187	167
Kotizazio sozialak eta Elkarkidetza	4.634	4.663
Beste gastu sozial batzuk	356	322
	21.914	21.654

Ekitaldian batez beste 471 pertsonak egin du lan; kopuru hori honela banatu da:

	Udala	Kultur		Zaharren		Guztira
		Etxea	Euskaltegia	Egoitza	K.U.E.	
Funtzionarioak, jabetzan dutenak	216					216
Bitarteko funtzionarioak	24					24
Lan kontratupeko langile finkoak		30	19	26	24	99
Aldi baterako lan kontratupeko langileak	97	11	7	9	8	132
Guztira 2010	337	41	26	35	32	471
Guztira 2009	281	41	28	34	31	415
Aldaketa	56	0	(2)	1	1	56

BASAURIKO UDALA
Memoria bateratua

Lanean aritu den bataz besteko pertsona kopuruaren igoera, Euskadi + Planak sortua izan da, gehienbat. Plan horren helburua langabezi egoeran zeuden pertsonak kontratatzea izan da eta Eusko Jaurlaritzak emandako finantzaketaren bidez gauzatu da.

e) Ustiapeneko bestelako gastuak

	Milaka eurotan	
	2010	2009
Kale garbiketa eta zarama bilketa	3.757	3.462
Eraikin publikoen garbiketa	2.201	2.162
Etxez etxeko zerbitzua	1.998	2.032
Gizarte eta kultura kontratuak	1.430	1.261
Kontserbazioa eta mantentzea	1.323	1.803
Komunikazioak	1.107	1.353
Ur hornidura	960	910
Elektrizitate hornidura	885	805
Parke eta lorategien garbiketa	901	759
Hondakin solidoak ezabatzea	817	875
Beste zerbitzuak eta gastuak	6.893	5.936
	22.272	21.358

19. Emaidza finantzarioak

	Milaka pezetetan	
	2010	2009
<i>Emaidza positiboak:</i>		
Epe laburreko ezarpenen interesak	362	756
Baiokodetzan jarritako sozietateen emaitzak	182	26
<i>Emaidza negatiboak kenduta</i>		
Epe luzeko zorreatiko gastu finantzarioak	(31)	(68)
Beste gastu finantzarioak	(28)	(17)
Emaidza finantzario garbia	485	697

20. Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak

	Milaka eurotan	
	2010	2009
Itxitako ekitaldietako eskubideak ezabatzea	342	274
Itxitako ekitaldietako obligazioak ezabatzea	0	1
Behin-betiko likidazioa Udalkutxa 2009	0	1.932
Guztira	342	2.207

BASAURIKO UDALA
Memoria bateratua

21. Ezohiko emaitzak

	Milaka eurotan	
	2010	2009
Soloarteko futbol zelaia jasotzea (Ibilgetu materiala)	1.269	0
Soloarteko urbanizazioa jasotzea (Erab. Orok. Inb.)	553	0
Ibilgetuak sortutako etekinak	1.175	1.838
Lurzoruaren ondareko bajak (7. oharra)	(1.005)	0
Guztira	1.993	1.838

Jasotako Soloarteko futbol zelaia eta bere ondoko urbanizazioa, hor kokatzen den udal lurzorupea, 2009 urtean saltzean lortutako prezioaren zati bat izan da. Ibilgetuak sortutako etekinak, bestalde, Lope de Vega izeneko aparkalekua eraikitzeko beharrezkoa zen udal lurzorupearen salmentari dagozkio.

22. Itxi ondorengo gertaerak

Itxi ondoren ezagutu dugu Udalkutxa 2010eko Likidazioaren behin-betiko kopurua, 1.273 milaka euroko zenbateko positiboa duena. Bizkaiko Foru Aldundiak erabakitakoaren arabera, Udalkutxa 2009ko Likidazioaren ordaingabeko saldoarekin konpentsatuko da eta itzulpena 2011tik 2013ra arteko ekitaldietan egingo da (ikus 13 b oharra)

23. Finantzaketa koadroak

Jarraian, 2010. eta 2009. ekitaldiei dagozkien finantzaketa koadroak jasotzen dira:

BASAURIKO UDALA
Finantzaketa koadro bateratuak
(milaka eurotan adierazita)

FONDOEN APLIKAZIOAK	2010	2009	FONDOEN JATORRIAK	2010	2009
Ibilgetuaren erosketak	25.529	19.817	Eragiketen ondoriozko baliabideak	15.180	15.797
Erabilera orokorrerako inbertsioak	13.675	10.469	Epe luzerako zorrak	4.300	5.903
Ibilgetze inmaterialak	570	843	Ibilgetuaren besterentzea	1.175	1.840
Ibilgetu materialak	10.346	8.127	Aurretiazko kitapena edo ibilgetu finantzarioa epe laburrean jartzea	43	55
Lurzoruaren udal ondarea	0	155			
Ibilgetze finantzarioak	938	205			
Epe luzerako zorra gutxitu eta berriro sailkatzea	3.382	515			
Funtsen aplikazioak guztira	28.911	20.214	Funtsen jatorriak guztira	21.783	23.595
Aplikazioen gaineko jatorrizko gehiegizkoa) (Kapital Zirkulatzaila gehitzea)		3.281	Jatorrien gaineko aplikazioen gehiegizkoa) (Kapital Zirkulatzaila gutxitzea)	8.213	

BASAURIKO UDALA
Memoria bateratua

a) Kapital ibilkorraren aldakuntza

	Milaka eurotan			
	2010		2009	
	Gehitzeak	Gutxitzeak	Gehitzeak	Gutxitzeak
Zordunak	3.802		2.929	
Epe laburrerako hartzekodunak		3.529	527	
Finantza-kontuak		8.486		175
Guztira	3.802	12.015	3.456	175
Kapital ibilkorraren aldakuntza		8.213	3.281	

b) Eragiketetatik datozen baliabideetara iristeko egin beharreko doikuntzak

	Milaka eurotan	
	2010	2009
Ekitaldiko emaitza	13.053	15.603
Gehitzeak:		
Amortizazioari egindako doikuntzak	2.297	2.050
Udal lurzorua onbareko bajak	1.005	
Gehitzeak guztira	3.302	17.653
Gutxitzeak:		
Ibilgetua besterentzean emandako onurak	1.175	1.838
Gutxitzeak guztira	1.175	1.838
Eragiketen ondoriozko baliabideak guztira	15.180	15.815

BASAURIKO UDALA
Memoria bateratua

24. Gastu publikoen burutzapena

a) Kredituen aldaketak

Jarraian 2010eko ekitaldian egindako kreditu-aldaketen laburpena eskaintzen da, Aurrekontuaren sailkapen ekonomikoaren arabera (milaka eurotan):

	Ezohiko kredituak	Kreditu transferentzi ak	Soberakin en inkorp. en	Sarrerengati ko sortutako kredituak	Baliogabetze agatiko bajak	Aldaketak guztira
Kapitulua						
Pertsonaleko gastuak	481	(110)	329	1.567	0	2.267
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	1.244	(256)	692	110	0	1.790
Gastu finantzarioak	23	(45)	9	0	0	(13)
Transferentzia arruntak	265	1	0	743	0	1.009
Inbertsio errealak	2.453	59	20.901	9.508	0	32.921
Kapital transferentziak	90	0	150	0	0	240
Finantza-aktiboak	732	(4)	0	0	0	728
Finantza-pasiboak	0	355	0	0	0	355
Guztira	5.288	0	22.081	11.928	0	39.297

b) Diruzaintzako soberakinak

Hau da 2010ko Aurrekontuaren likidazioaren ondoriozko Diruzaintzako soberakinaren xehetasuna, sailkapen funtzionalaren arabera, Konprometitua eta Konprometitu gabeak ezberdinduta (milaka eurotan):

Programak	Kreditu soberakina	
	Konprometitua	Konprometitu gabea
Pertsonaleko gastuak	751	593
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	1.108	697
Gastu finantzarioak	0	14
Transferentzia arruntak	0	266
Inbertsio errealak	7.120	10.490
Kapital transferentziak	0	165
Finantza-aktiboak	0	87
Finantza-pasiboak	0	355
Guztira	8.979	12.667

c) Inbertsio-proiektuen burutzapena

2010. ekitaldia ixtean, Basauriko Udalak hurrengo inbertsio proiektuak dauzka egikaritzan (milaka eurotan):

BASAURIKO UDALA
Memoria bateratua

Kodea	Aurrekontu programa	Esleituta guztira	Esleituta oblig. ezagutu gabe
1221	Informatizazioa	494	270
2225	Herritar segurantz	82	82
4311	Eraikin publikoak	7.873	2.538
4321	Hirigintza	4.277	591
4412	Estolderia eta hondakin urak	2.109	744
4622	Gizarte oinarrizko azpiegiturak	438	4
4632	Estatuko enplegu eta jasagarritasun fondoa	3.721	571
5111	Bide publikoak	7.811	2.270
-	Bestelako proiektuak	1.899	0
		28.704	7.070

d) Aurrekontuan aplikatu gabe dauden eragiketen ziozko hartzekodunak

2010eko abenduaren 31n, 1.513 milaka euro daude, ekitaldiko aurrekontuari aplikatu gabeko gastuei dagozkienak aipatu datan (ikus 14. oharra). Horietarik, 830 milaka euro erabilera orokorrerako inbertsioei dagozkie eta, gainontzekoa, gastu arruntei.

e) Aurrekontuko gastuak aldizka jartzeagatiko hartzekodunak

Udal honi aplikatu beharreko kontabilitate-printzipio publikoen arabera urteko kontu hauek aurkeztearen ondoretarako, 2010ko ekitaldiaren amaieran aldizkakotu beharreko aurrekontuko gastu ekonomikorik ez da zenbatu.

g) Diruzaintzako aurrerakinak

2010eko ekitaldiaren amaieran diruzaintzako aurrerakinak kontuak guztiz kitatu dira, eta aurretik kontabilitate itxierako prozesuei aplikatu gabe zeuden partida guztiak dagozkien gastuen kontuan kargatu dira.

h) Konpromisozko Kredituak

Partida	Descripcioa	Urtea	Finantzaketa	Milaka eurotan
31.4412.60116	Colector Pozokoetxe	2011	Berezko fondoak	678
22.1261.68210	Soloarteko aparkalekua	2012	Epe luzeko kreditua	3.385
31.4321.60102	Iparragirre kaleko igogailua eta urban.	2012	Berezko fondoak	450
Batzuk	Bestelakoak	2011-13	Berezko fondoak	816
	Guztira			5.329

Soloarteko aparlekuari dagokion konpromisoa, izen hori daukan futbol zelaiaren azpiko lurzorupearen salmenta kontratutik dator. Hitzarmen horren arabera, Udaletxeak bere egiten du gehenez 175 partzela erosteko konpromisoa, baldin eta horiek ez badira saltzen 2012 urriaren 2a baino lehenago.

BASAURIKO UDALA
Memoria bateratua

25. Sarrera publikoen burutzapena

a) Ezagututako eskubide garbiak

	Praktikatutako likidazioak	Baliogabetzeak	Ezagututako eskubide garbiak
Zuzeneko zergak	11.013	132	10.881
Zeharkako zergak	1.049	45	1.004
Tasak, prezio publikoak eta beste sarrerak	9.643	82	9.561
Transferentzia arruntak	28.860	154	28.706
Ondare-sarrerak	405	0	405
Inbertsioak besterenganatzea	1.368	15	1.353
Kapital transferentziak	10.286	5	10.281
Finantza-aktiboak	168	1	167
Finantza-pasiboak	4.300	0	4.300
	67.092	434	66.658

b) Bilketa garbia

	Zerga-bilketa gordina	Itzulketak	Zerga-bilketa garbia
Zuzeneko zergak	10.618	41	10.577
Zeharkako zergak	591	10	581
Tasak, prezio publikoak eta beste sarrerak	7.884	21	7.863
Transferentzia arruntak	26.248	154	26.094
Ondare-sarrerak	403	0	403
Inbertsioak besterenganatzea	1.088	15	1.073
Kapital transferentziak	5.165	5	5.160
Finantza-aktiboak	167	0	167
Finantza-pasiboak	4.300	0	4.300
	56.464	246	56.218

c) Itxitako aurrekontuetan kobratzeko dauden eskubideak

	Urtea	Hasierako	Aldaketak	Ezabapen	Dirubilketa	Amaierako
2000 / aurrek.		225	0	5	2	218
2001		29	0	21	0	8
2002		145	0	10	124	11
2003		11	0	5	0	6
2004		131	0	72	4	56
2005		66	0	7	4	55
2006		99	0	22	6	71
2007		295	0	42	14	239
2008		578	0	81	126	371
2009		6.959	2	79	4.718	2.165
Guztir		8.537	2	343	4.998	3.198

Ezabatutako eskubideak, halaber, aurreko ekitaldietako gastu eta galeren epigrafean erregistratu dira (ikus 20. oharra). Halaber, zalantzako kobrantza duten saldoen hornidurak (ikus

BASAURIKO UDALA
Memoria bateratua

9. oharra) 1.405 milaka euro hartzen ditu, eta aurreko koadroan zehaztu diren itxitako aurrekontuetan kobratu gabeko eskubideen hornidurari dagozkio.

26. Eragindako finantzaketa daukaten gastuak

Deskripzioa Proiektuak	Créditos Finales	Finantza agenteak					
		Kanpokoak			Berezko finantzaketa		
		Es- tado	CAPV	THB	Ingres. Urban.	Pres- tamo	Recur. Ordin.
Puentes Artunduaga y Baskonia.	4.738			4.738			
Edif. Recog. aut. R.S.U.- Aula M.A.	3.649	3.649					
Itinerario peat. y bici a San Miguel.	3.282			3.282			
Reurbaniz. en Bº Hernán Cortés	3.113		744		395	1.275	699
Reforma del Social Antzokia	2.853					2.000	853
Colector Pozokoetxe. Fase II	1.986			1.986			
Urbaniz. zona Metro en Ariz	1.791			1.791			
Obras acond. edificios públicos	1.130		856				274
Contrat. personal Plan + Euskadi	1.042		1.042				
Instalación ascensores urbanos	925				925		
Refor e Inst. solar P.Artunduaga	800	800					
Rehabilitación Taberna Mayor	739					502	237
Reconstrucción muro de Soloarte	714				500		214
Ayudas de carácter social	683		443				240
Rehab. parque Instituto Bidebieta	675	675					
Colector Pozokoetxe. Fase I	542		542				
Construcción Edificio Seguridad	521					442	79
Adquisición terrenos e inmuebles	518				517		
Contrataciones personal INEM	493	493					
Paseo de Ribera	485				484		
Plan Local de Inserción	300		300				
Renovación de aceras	279	279					
Reformas polideportivo Basozelai	272	272					
Reforma Plaza de Arizgoiti	246	246					
Inversiones en alcantarillado	243				243		
Otras actuac. financ. afectada	1.306	670	20	45	203	193	175
Resto créditos no afectados	54.194						54.196
GUZTIRA	87.519	7.084	3.947	11.842	3.267	4.412	56.967
		22.873			64.646		

27. Abalak

	Hasierak Saldoa	Sarrerak	Ordaink	Amaierak Saldo
Jasotako abalak	4.811	4.311	1.481	7.642
Emandako abalak	87	0	0	87

28. Aurrekontuz kanpoko eragiketen egoera

a) Aurrekontuz kanpoko hartzekodunen egoera

BASAURIKO UDALA
Memoria bateratua

	Hasierako saldoa	Sarrerak	Ordainketak	Amaierako saldoa
B.E.Z.a.	0	223	223	0
P.F.E.Z.a	828	3.372	3.362	838
Gizarte Segurantzza	453	4.975	4.957	471
Beste zordunak	405	1.191	1.053	543
	<u>1.686</u>	<u>9.761</u>	<u>9.595</u>	<u>1.852</u>

b) Aurrekontuz kanpoko zordunen egoera

	Hasierako saldoa	Sarrerak	Kobrantzak	Amaierako saldoa
B.E.Z.a	40	115	121	46
Bestelako zordunak	104	112	104	96
	<u>144</u>	<u>227</u>	<u>225</u>	<u>142</u>

c) Aplikatu gabe dauden partiden egoera

	Hasierako saldoa	Sarrerak	Irteerak	Amaierako saldoa
Sarrerak	155	1.639	1.671	123
Gastuak	3	315	289	29

29. Diruzaintzako soberakina

	Milaka eurotan	
	2010	2009
+ Eskuratzeko dauden eskubideak:		
- Uneko aurrekontukoa	10.440	7.046
- Aurrekontu itxietakoak	3.204	1.578
- Aurrekontutik kanpoko eragiketekoak	142	144
- Zalantzak diren kobrantzak	(1.406)	-1.505
- Aplikatu gabeko sarrerak	(123)	-155
	<u>9.730</u>	<u>9.039</u>
- Ordaintzeke dauden obligazioak:		
- Urteko aurrekontukoa	7.899	7.233
- Aurrekontu itxietakoak	6	0
- Aurrekontutik kanpoko eragiketekoak	1.852	1.809
- Aplikatu gabeko ordainketak	(29)	-3
	<u>22.683</u>	<u>31.186</u>
+ Funts garbiak	<u>22.683</u>	<u>31.186</u>
=Diruzaintzako soberakina	<u>25.210</u>	<u>29.255</u>
- Afektaturiko Diruzaintzako soberakina	<u>17.210</u>	<u>17.202</u>
GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAIN-TZA-SOBERAKINA	<u><u>8.000</u></u>	<u><u>12.053</u></u>

BASAURIKO UDALA
Memoria bateratua

30. Adierazleak

FINANTZA ETA ONDARE ADIERAZLEAK		
<u>Likidezia beheralakoa</u>	<i>Finantza kontuak / Hartzekodunak, epe laburrera</i>	1,71
<u>Kaudimen epe laburrekoa</u>	<i>Aktibo zirkulatzaila / Hartzekodunak, epe laburrera</i>	2,53
<u>Zorpeketa epe luzekoa</u>	<i>Hartzekodunak, epe luzera / Pasiboa guztira</i>	0,08
<u>Ondare kaudimena</u>	<i>Berezko fondoak / Pasiboa guztira</i>	0,80
AURREKONTU ADIERAZLEAK		
<u>Gastuen egikaritzea</u>	<i>Ezagututako obligazioak / Behin- betiko aurrekontua</i>	0,76
<u>Inbertsio ahalegina</u>	<i>6.-8. kapituluuen gastua / Ezagututako obligazioak guztira</i>	0,33
<u>Sarrerren egikaritzea</u>	<i>1.-7. kapituluuen eskubideak / behin-betiko aurrekontua</i>	1,05
<u>Autonomia</u>	<i>1.-3. kapituluuen sarrerak / Sarrera arruntak guztira</i>	0,42